

SALAMANCA-KO UNIVERSIDADEA

Salamanca-ko Unibertsidadean «Manuel de Larramendi» izeneko katedrak, beste urteetan bezela, ikastaro bat antolatu du euskal-izkuntzaz, eta ortarako Luis Michelena euskaltzainia deitua izan da. Ori ala izanik ilbeltzean egin zuen egotaldia bertan.

«EUSKAL-KULTURAREN ALDE»-K EGINDAKO IPUI-SARIKETA

Euskal Kulturaren Alde izeneko elkargoak egindako Ipui-Sariketan Jean Etchepare Donapaleu-koak irabazi du leנדabiziko saria «Mendekoste gereziak» titulua duen ipuiakin. Bigarrena Julene Azpeitia Durango-ko andreak «Goizeko izarra»-rekin. Irugarrena Marijane Minaberry Ustaritzeko anderañoak «Lupien bisita»-rekin. Sariak ogetabost, amabost, eta amar milla liberakoak izan dira. Ortaz gainera amabi sari milla liberako banatu dira. Epai au Miarritzen eman zuten «Euskal Kulturaren Alde»-ko batasunekoak 1960 Otsailaren 4-an.

DURANGO-KO ASTARLOA SALOIAN

Jentez beterik zegoela, Durango-ko Astarloa Saloian ere egin da Euskal-jai bat maiatzaren 22-an bertsolari, txistulari, Iyorretako dantzari ta kantariak parte arturik. Esan zan guztia euskeraz esan zan. A. Irigoyen-ek itz batzuek esan zituen asieran euskaldunak euskera maitatzera ta aintzat artzera bul-tzaturik.

BIZKAIKO NESKA MUTILLEN ESAMIÑAK

Iragarrita zegoen bezela garagarillaren 2-an egin dira Bilbon Bizkaiko neska-mutillen esamiñak. Jesuiten kolejioko gela batean izan da eta berrogei izan dira esamiñatu diran aurrak, Gabika, Laukiniz, Arrazola, Muxika, Ondarru, eta Bilbotik etorriak. Sariez gainera diplomak ere emango zaizkie, bai aurrari eta bai gertatzen alegindu diranai. Euskaltzaindiak Bizkairako egin duen sari-keta onek frutua ekarri du, eta pentsatu bear litzake nola esamiña auei zabaltasun aundiagoa eman.

BERTSOLARIEN SARIKETAK

Aurten ere gertatzen ari dira bertsolarien sariKETAK. Nafarroan ere bai. Bizkaian leנדabizikoa Urkiola-n egin zan garagarillaren 19-an, igande egunez. San Antonio egunez ezin egin izan zan eguraldi txarragatik. Durango inguru-etako bost bertsolari aritu ziran eta txapeldun German Uriguen Ermuko semea gelditu zan. Igazko txapeldunak etzuen parte artu geroago txapeldun berriak zarrakin jartzeko asmoa dagoelako.

Nafarroan garagarillaren 26-an izan da txapelketa bat Lekunberri inguruko bertsolariantzat. Diputazioko **Euskeraren Aldeko Sailla**-k antolatu zuen, bide